



metro bilbao

2023
AGIRIA





metro bilbao

Aurkezpena

Metro-zerbitzua

Iraunkorra eta jasangarria

Pertsonak

Baliabide teknikoak

Metroa eta gehiago

Metroa zenbakitan

Kalitatezko garraio publikoa

Garraio publikoa erabiltzea sustatzeak, eta kalitatezko zerbitzuen bidez egiteak mugitzen gaitu. Mugitzen gaitu lurraldea lotzen duten garraiobide publikoa, eraginkorra eta kalitatezkoa izatea gakoa baita Bizkaiarentzat, eta denok aukera berdinak izan ditzagun.

Horretan murgilduta gaude, Metro Bilbaok funtsezkoa baita. Izan ere, gure lurraldea egituratzen duen ardatza ez ezik, gure ingurunearekin erabateko konpromisoa ere badaukagu, eta iraunkortasunaren eta mugikortasunaren deskarbonizazioaren aldeko apustua egin dugu. Zeren, adibidez, Metro Bilbaok errepideetatik 71 milioi auto ateratzen lagundu baitu, 80 milioi tona CO2 isurtzea saihestuz.

Horrek behar du gure bidea, bizkaitar guztiak eta Metro Bilbao noranzko berean joan gaitezen. Horrela ezin hobeto egingo dugu bidaia.

Elixabete Etxanobe Landajuela
Presidentea



Gure urterik onena

2023. Hogeita zortzi urteotako ekitaldirik onena, 92,3 milioi bidaiarekin. Metro Bilbaok 1995ean martxan jarri zenetik 114 milioi kilometrotik gora egin du, munduari 2.830 bira ematea beste.

Datu ikaragarri onak dira, ezbairik gabe. Halakoa da, era berean, 200.000 zerbitzu inguru eskaini izana, prestasuna %99,57 eta puntualtasuna %97,67 lortuz. Edozelan ere, metroan lan egiten duten pertsonen profesionaltasuna eta jarduera ona erakusten duten datuak dira.

Gure markarik onena lortu dugu, egunerokoan, aisialdirako zein lanerako, dena delakorako erabiltzen duten pertsonak, bakoitzak, gudan jartzen duen konfiantzari eskeri, gainera. Bizkaian garraio publikoan ibiltzen den bi pertsonatik batek hiriarteko trena erabiltzen du eta erabiltzaileen %93 harro dago horretaz.

Hain zuzen, sentimendu hori gure zerbitzuak dituen kalitate-estandarrekin ematen jarraitu ahal izatean sentitzen dugun harrotasunarekin soilik pareka daiteke, jakitun kalitate horri eusteko lanean segitu behar duguna eta guztiz ziur horretan tematuko garena.

Eneko Arruebarrena Elizondo
Zuzendari nagusia



Administrazio Kontseilua

Presidentea Unai Rementeria Maiz jauna *
Elixabete Etxanobe Landajuela andrea **
Luis Pedro Marco De La Peña jauna

Kontsiluko
kideak: Juan Maria Aburto Rique jauna
Amaia Aguirre Muñoa andrea
Asier Iragorri Basaguren jauna
Miguel Angel Gomez Viar jauna *
Sonia Pérez Ezquerria andrea **
Miguel De Los Toyos Nazabal jauna
M^a Dolores De Juan De Miguel andrea
Hernando Lacalle Edeso jauna
Josu Iñaki Garay Ibañez De Elejalde jauna


Idazkaria ez
kontseilukoa: Raúl Carretón Salvador jauna

* 2023ko irairalen 13rarte

**2023ko irailaren 13tik aurrera



Organigrama





GARAPEN **HELBUURUAK** **IRAUNKORRERAKO**

Metro Bilbaoren erakunde-arduraren politika GIH guztien, 17en inguruan egituratuta dago, bereziki «Hiri eta komunitate iraunkorrak» helburuari begira, gure lurraldean mugikortasun jasangarria eta inklusiboa errazteko bitartekoa garelakoan.



POBREZIA DESAGERTZEA

Pobrezia mota guztiak desagerraraztea mundu osoan.



GOSERIK EZ IZATEA

Gosea amaitzea, jaki seguruak eta elikadura hobea lortzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.



OSASUNA ETA ONGIZATEA

Guztientzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea



KALITATEZKO HEZKUNTZA

Kalitateko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea, eta pertsona guztientzat etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea.



GENERO-BERDINTASUNA

Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.



ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ-KUTSATZAILEA

Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa pertsona guztientzat bermatzea.



LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta pertsona guztientzako lan duina sustatzea.



DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

Herrialdeen arteko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea.



PRODUCCIÓN Y CONSUMO RESPONSABLES

Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea.



PAZ, JUSTICIA E INSTITUCIONES SÓLIDAS

Gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, pertsona guztiei justiziarako sarbidea erraztea eta maila guztietan kontuak ematen dituzten erakunde eraginkor eta inklusiboak eraikitzea.



INDUSTRIAL BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria sustatzea eta berrikuntza sustatzea.



HIRI ETA KOMUNITATE IRAUNKORRAK

Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea.



ACCIÓN POR EL CLIMA

Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.

METRO-ZERBITZUA



San Tomas izan da, berriro ere, egunik jendetsuena, hiriarteko trenaren historiako bigarren erregistrorik onena, hain zuzen.

92,3 miloi bidai, errokor historiko bat

Metro Bilbaok mugarri bat lortu du 92,3 milioi bidaia kopurua gainditu eta urteko errekor berria ezarrita. Hiriarteko trenak atzean utzi ditu pandemiak eragindako kalte handiak, eta aurreko gailur historikoa, 2019ko 91,5 milioiren bidaia-kopurua ia %1 hobetu du.

Metro Bilbao metropolia egituratzen duen ardatza eta Bizkaian gehien erabiltzen den garraiobide publikoa da. Bizkaian garraiobide publikoan ibiltzen diren bi pertsonatatik batek metroa erabiltzen du.

Era berean, azaroan eta abenduan historiako erregistrorik onenak lortu ziren.

Lanak edo ikasketek eragindako garraio-ohiturak berreskuratzeari esker lehengoratu da pultsua lanegunetan, aisialdiko jardueretako eta asteburuetako joan-etorrien estatistika izugarri hobetu bazen ere, %18 eta %5 igoz 2022aren eta 2019aren aldean, hurrenez hurren.

Eskaria gehien jaiegunetan hazi arren, neguko lanegunetan lortu ziren Metro Bilbaoren eguneko markarik onenak, batez beste 299.583 bidaiarekin, 2019an (300.048) baino apur bat gutxiago. Zehazki, igoerarik nabariena 14:00-15:00 tartean izan da; datu horretan oinarritu da hiriarteko tren-konpainia aurtengo zerbitzuaren maiztasuna hor indartzeko.

METRO-ZERBITZUA



Geltoki eta linearik erabiliak

Eskaria oro har hazi arren, 2023an ez zen aldaketa handirik izan geltokirik erabilienei dagokienez. Hartara, Zazpikaleak/Casco Viejo, Santimami/San Mames eta Abando geltokiek enborreko kopururik onenei eutsi zieten, eta itsasadarraren albo banatan Barakaldo eta Gurutzeta/Cruces, eta Areeta nagusitu ziren.

Joan-etorrien banaketa geografikoari adituz, 2 linea izan zen berriro erabiliak (%41), ondoren enborra (%33) eta 1 linea (%25).

4.881.455 kilometro eta 203.613 zirkulazio egin genituen, puntualtasunean %97,67 eta fidagarritasunean %99,57 lortuz.

METRO-ZERBITZUA



Bezeroen iritzia

Amaiera modura, urtero bezala, Metro Bilbaoren zerbitzuari buruzko iritzia eskatu zaie bezeroei. Batez beste, oso ondotik gorako nota ateratu zen azterketan oraingoan ere. Erabiltzaileek, oro har, 10etik 8 puntu eman zizkioten hiriarteko trenari. Hona hemen ondoen iritzitako ezaugarriak:

8,5

Geltokiaren garbitasuna

8,4

Barik euskarria

8,3

Trenen garbitasuna

8,2

Lastertasuna

8,2

Errespetua gaztelania eta euskara erabiltzeari

8,1


Seinaleak geltokietan

8

Irisgarritasuna

Gainera, ehunekotan, galdetutako pertsonen %88k oso modu positiboan baloratu zuten zerbitzuaren azkartasuna eta %85ek puntualtasuna.

METRO-ZERBITZUA



Txartelen erabilpena

Creditrans erabili zen gehien berriro ere, metroko bidaien erdia baino gehiago, zehazki %56,16, berarekin egin ohi baitira. Oso urrunera bada ere, erabilpenean bigarrena Gizatrans izan zen (%12).

Txartela	Gune 1	2 gune	3 gune
Joanaldia-txartela	%1,7	%1,9	%1,95
Creditrans	%0,48	%0,57	%0,62
Gizatrans	%0,19	%0,19	%0,19
Bidai 50	%16,5	%19,4	%21,75
Bidai 70	%19,75	%22,75	%25,5
Bidai Oro	%23,75	%26,25	%28,5
Gazte 70	%16,6	%19	%21,75
Gazte Oro	%20	%22	%24

METRO-ZERBITZUA




Zerbitzu bereziak

Guztira, ehun bat zerbitzu berezi eman ziren hainbat ekitaldi estaltzeko: hiriarteko trenak zeharkatzen dituen herrietako jaiak, kirol-, kultura-, aisialdi-hitzorduak zein BECen egindako oposizio-azterketa jendetsuak.

Zerbitzu berezi ugari jarri ziren, tren gehiago sartuz zein amaiera-ordua luzatuz, eskaintza gizarte- eta kultura-jardueren gero eta eskari handiagora egokitzeko.

Aste Nagusiak, bederatzi eguneko zirkulazio etengabearekin, eta San Tomas egunak maiztasun-ahalegin garrantzitsua eskatu zuten, baita Frantziako Tourra Bilbotik abiatzeak ere, egun osoan hedapen berezia eragin zuelako.

METRO-ZERBITZUA



Wifi gehiago

Zazpi wifi puntu gehitu ziren: Gobela, Neguri, Urduliz, Plentzia, Bagatza, Abatxolo eta Kabiezes

Egun 35 geltokik dute wifi konexioa, 15 minutuz doan nabigatzeko.

Hilean batez beste 40.000 konexio izan ziren.
Konexio gehien geltoki hauetan egin zen: Zazpikaleak/
Casco Viejo, San Ignazio, Indautxu, Santimami/San Mamés,
Areeta, Sestao eta Barakaldo.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

Mugikortasunaren Europako Astea 2023 zela-eta, Medusa proiektu aitzindaria zabaldu zen; metroko energia Bilbobusen autobusetara bideratzeko modua aplikatzean datza. 8 terminal jarri ziren Elorrietako gordetegieta, autobus elektrikoak gauero kargatzeko.

Proiektuaren funtsezko oinarria kargatzeko sistema adimentsua da, Metro Bilbaon dagoen potentzia-aukeraren arabera kargatzea kudeatuz, bereziki gau-orduetan, bi zerbitzuen jarduera jaisten denean, terminal bakoitzaren karga monitorizatu, aztertu eta egokitzen den aldi berean.

Proiektuak Next Generation funtsen babesa jaso zuen eta lehendik dauden azpiegitura elektrikoetan kontratatutako potentzia optimizatzeko aukerak garatzen aritzen den Medusari esker gauzatu zen. EVE, Repsol eta Ase taldea lankidetza publiko-pribatuan aritu zirelako eta Bilboko Udala, Metro Bilbao eta ALSA inplikatu zirelako sortu zen.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



EMAS sistema Europar Batasunak garatutako kudeaketa-tresna bat da, ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarri eta, ikuskaritza independenteen bidez, etengabe hobetzeko konpromisoa hartu duten erakundeak identifikatu eta egiaztatzen dituen.

IRAUNKORTASUNA

Itsas-museumean egin zien Eusko Jaurlaritzak aitortza-ekitaldia EMAS ingurumena kudeatzeko Europako sisteman erregistratutako euskal erakunde eta enpresei.

Kudeaketarekin eta eguneroko lanarekin ekonomikoki aurrera egitea eta planeta eta ingurunea zaintzea uztargarriak direla erakutsiz, Metro Bilbaori aitortza hori egin zioten. Bulego tekniko eta obretakoaren buru Juan Carlos Mendoza gure lankide eta ordezkariak jaso zuen.

«Iraunkortasunean egiten diren inbertsioek ingurumena babesteaz gain enplegua sortu eta berrikuntza sustatzen dute», esan zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak ekitaldi publiko hartan.

EMASen erregistratutako erakundeek hitzematen dute beren ingurumen-jokabidea ebaluatu, kudeatu eta hobetuko dutela eta, horrela, erregistratutako erakundeen jarduna, sinesgarritasuna eta gardentasuna hobetzen dira.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



ENERGIA BERRESKURATZEA

Trenen balaztatze-sistemak energia berreskuratu eta trenik gertuenak elikatzeaz gain, azpiestazioetan jarritako gelaxka itzulgarrien bidez geltokiak elikatzeko 2,2 Gwh berreskuratu ahal izan ziren, baitan energia sarera itzuli ere. Guztira 280.000 euro baino gehiago aurreztu ziren.

Energiaren %3 aurrezteak 747 etxebizitzaren urteko kontsumoaren parekoa da (IDAE energia dibertsifikatu eta aurrezteko institutuaren kontsumo-datua).

Era berean, energia kudeatzeko sistema ISO 50001 arauaren eta ingurumena kudeatzeko sistema ISO 14001 arauaren eta EMAS adierazpenaren bidez egiaztatzea lortu zen.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



GURE EKARPENA INGURUMENARI

Zerbitzuari dagokionaz harago, Metro Bilbao urte asko sustatzen daraman ingurumen-apustua 2023an finkatu zen, metropoliko trenaren zerbitzuak lurraldeko errepideetatik 71 milioi autotik gora ateratzen lagundu baitzuen eta, horrela, 80.000 tona CO2 isurtzea eragotzi baitzuen. Zehazki, 19.119 tona energia berdea erosteari lotzen zaizkio.

%100 da energia berdea.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



IRISGARRITASUNA

Metro Bilbaok bi neurri ezarri zituen geltokietan gorren eta itsuen irisgarritasuna hobetzeko. Irisgarritasuna sustatzen jarraitzea bere instalazioetan erabatekoa izan dadin lortu arte, horixe da enpresak hasiera-hasieratik dituen helburutako bat.

Ekainaren 23an Metro Bilbao, Euskadiko Gorrak eta ONCE elkarteek beste bi neurri aurkeztu zituzten, gorrei edo entzumen urriko pertsonei, eta itsuei edo ikusmen urriko pertsonei garraio-zerbitzu irisgarriagoa eskaintzeko. Bi ekimenek metro-zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko informazioa eskurago jartzen die. Abando geltokian egin zen erakustaldian Euskal Gorra- en presidente Aitor Bedialauneta, ONCE Euskadiren ordezkari Usue Vallejo eta Metro Bilbaoren zuzendari nagusi Eneko Arruebarrena bildu ziren.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



“Hemendik aurrera, Euskal Gorrak eta Metro Bilbao elkarlanean aritzeari esker, bideo-interpretazioaren bidez, gorrok zeinu-hizkuntza erabil dezakegu komunikatzeko, eta hori oso garrantzitsua da gure kolektiboarentzat”, esan zuen Bedialaunetak.

INFORMAZIO ESKURAGARRIAGOA

Gor dauden edo entzumen urria duten pertsonen arreta hobetzeko bideo-interpretazioko plataforma bat (SVIsual) jarri da, urruneko komunikazioa bideratzen baitu. Plataforma hori Komunikazio-barrerak ezabatzeke CNSE fundazioak sortu du, Gorren Estatuko Konfederazioarekin elkarlanean, eta Industria Ministerioak, Gizarte-politiken eta Agenda 2030aren Ministerioak eta ONCE Fundazioak lagundu eta babesten dute.

Zerbitzu hori metro-zerbitzuaren ordutegi berean ematen da, eta ikusmen eta entzumen urriko pertsonak gainerako herritarrei ematen zaien informazio guztia jaso ahal izan dezaten. Hartara, app hori deskargatu eta gero, behar duena bideo-interpretazioko zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke, zeinu-hizkuntza ezagutzen duten, alegia, bezero gorren galderak erantzun eta zalantzak argitzeko gai diren pertsonekin. Horretarako, Metro Bilbaoren instalazioetako interfono guztietan dagoen zenbaki-kodea sartu besterik ez da egin behar. Identifikazio-zenbaki horri esker, deia erantzuten duenak gorraren kokapen zehatza jakingo du.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



“Gaur aurkezten den braille-sistema ikusmen urriko pertsonentzako beste lorpen bat da, mugitzean garraiobide irisgarri batek ematen dien segurtasun-sentipena izateko. Beste urrats bat zentzumen-irisgarritasuna erabatekoa izateko gure eskarian, zein Metro Bilbaok beti ondo hartu duen”, azpimarratu zuen Vallejok.

BRAILLE ESKUDELETAN

Metroaren irisgarritasuna hobetzeko bigarren ekimena itsuei edo ikusmen-arazorik duten pertsoneri zuzentzen zaie; mezzaninako eskudelen behealdean jartzen den braille-seinale bat da, itsuak, ukitzean, joan nahi duen lekura heltzeko zein nasatara jaitsi behar duen jakin dezan.

Proiektu hori garatzeko ONCEko boluntarioek lagundu ziguten, Indautxu geltokian proiektu pilotua probatu eta aholkuak emanaz. Lankidetza horren ondorioz hobekuntzak sartuz joan ginen jada orain geltoki guztietan ezarrita dauden seinaleetara heldu arte. Eskerrik asko ONCEko boluntarioei hobetzen laguntzeko beti prest egoteagatik.

METRO IRAUNKORRA ETA IRISGARRIA



INFORMAZIOA BRAILLEN DAKARTEN TXARTEL-AZAL BERRIAK

Txartelak eroateko zorro-modelo berria diseinatu zen, non itsuentzako informazioa sartu zen estreinako. Erraz aurkitzen den braille erliebeko karratu bat txertatu zen zeinetatik eskuko telefonoaren bidez audio bat entzun ahal zitekeen.

Txartel-azal horiek ONCErekin elkarlanean diseinatu ziren eta eskatu eta hartzeko daude BABetan eta geltokietan.

ATUCEN IRAUNKORTASUN-BATZORDEA

Batzordea gure bulegoetan bildu zen, eta bertaratu zirenek gure enpresaren irisgarritasun-proiektuen berri jaso zuten. Geltokietara joan ziren entzumen urriko pertsonentzako informazioaren eta trenaren eta nasaren arteko distantzia fisikoa murrizteko dispositiboak ikustera.



PERTSONAK



Lantaldea

Guztira 812 langile ditu Metro Bilbaok, 48,32 urteko batez besteko adinarekin.

Zuzendaritza	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaritza nagusia	1	1	2
Administrazioa eta Segurtasuna	8	12	20
Pertsona-ondarea	15	14	29
Bezeroak eta Gizarte-berrikuntza	19	3	22
Komunikazioa eta Markaren-garapena	5	1	6
Operazioak	197	306	503
Teknikoa	21	209	230
Guztira abenduaren 31an	266	546	812

Batez besteko adina	
Gizonak	48,85
Emakumeak	47,23
Lantaldea	48,32

PERTSONAK



Lana eta familia uztartzea

Langileek lana eta familia uztartu ahal izan ditzaten saiatzen gara.

Murrizketa-mota	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lege-zaintzako lan-murrizketak (37,5 art. Langileen estatutua)	75	43	118
Lanaldi-murrizketa boluntarioak (MB barne araudia)	21	12	33
Guztira	63,58% 96	36,42% 55	100% 151

PERTSONAK



Prestakuntza

Cure langileen prestakuntza etengabea alderdi garrantzitsua izan zen gure jardueran. 244 ikastaro antolatu ziren: 3.499 pertsona, 742 taldetan, guztira 44.248 orduko inbertsioa, hots, batez beste 54,49 ordu/pertsona. Proiektatutako prestakuntza-planaren %95 bete zen, eta asetahun-maila 10etik 8,36 izan zen.



Berdintasun plana

Metro Bilbaok genero-berdintasunarekin duen estrategia VII. Planean (2024-2026) islatzen da; hobetu eta aurrera egiteko 49 ekintza, genero-jazarpenari edo -indarkeriari zelan aurre egin, zelan artatu, prestakuntza eta sentsibilizazioa langile guztiei, LGTBI+ kolektiboaren, eta bereziki emakume transen errealitatea ezagutzea, enpresa barruan eta inguruan erabateko berdintasuna lortzeko. Langileen ordezkariak aho batez onartu zuten.

BERDINTASUN-BEREIZGARRIA

Berdintasun-ministerioak irailean laugarrenez luzatu zigun 2010ean lehenengoz lortu genuen Berdintasuna Enpresan bereizgarria.

PERTSONAK



Hizkuntzak kudeatzea

EUSKARA LAN-HIZKUNTZA

«Euskara lanetan» kanpainak ikusgarritasun handiagoa eman zion gure hizkuntzari lanerako tresna gisa Metro Bilbaoko sail ezberdinetan. Guztiak inplikatu ziren, gehiago edo gutxiago, mikroplan izendatu genituenetan. Zuzendaritza-batzordeak ere euskararekin dituen konpromisoak adierazi zituen, «enpresan irekitako prozesuaren» haritik.

Apustu berria euskararekin Norbanakoek berbatratuen bidez hartutako konpromisoez gain, enpresak gure hizkuntza lan-hizkuntza izateko bideari ekin zion.

Hemen hautatuak: Kerman Arcelay, Nerea Alonso, Alberto Plano, José Ángel Izquierdo, Maria Josefa González eta Jesus Ulecia. Aipamen berezia merezi dute BABen kolektiboak eta komunikazio-taldeak, harremanak, elkarrizketa, idaztea eta artatzea euskaraz egiteko eta, behar izanez gero, gaztelaniara itzultzeko erronka hartu zuten.

METRO BILBAO EUSKARAZKO KLASIKOEKIN

Tradizioarekin zintzo, Metro Bilbao berriro egon zen Bilbo Zaharra euskaltegiak Arriaga antzokian antolatzen duen euskarazko literaturako klasikoen irakurketa etengabea. Edizio honetan duela hamarkada bat Miren Agur Meabe gailurrera eroan zuen «Kristalezko begi bat» liburua hautatu zuten. Metro Bilbaoren ordezkariak komunikazioko gure teknikariak izan ziren: Arantza Durán eta Unai Morán.

PERTSONAK



Enpresen lasterketa

Lau talde osatu genituen, eta parte hartu zuten pertsona guztiak beren kategoriako ohorezko postuetan amaitu ziren. Gainera, domina bat eskuratzeko zorian egon ginen, laugarren laurdenean, kaxatik 43 segundora.



Laneko medikuntzaren euskal sozietatearen bilera

Metro Bilbaoren Nafarroa kaleko egoitza nagusian egin zen Laneko medikuntzaren euskal sozietatearen zuzendaritza-batzordearen ohiko bilera. Gure pertsona-ondarearen zuzendari Rosa Fernández-Villa eta Prebentzio-zerbitzuaren buru Iñigo Apellaniz izan zituzten anfitrioi



BALIABIDE TEKNIKOAK

Ibilgailuen mantentze-lanak ziurtatzea

Metro Bilbaok trenbide-ibilgailuen mantentze-lanen erakunde arduradun ziurtagiria lortu zuen. Interes orokorreko saretik doazen ibilgailuak mantentzen dituzten konpainientzat soilik nahitaezkoa den aitortza den arren, gure enpresak ateratzeko borondatea izan zuen, lanetan kalitate- eta segurtasun-baldintza horiek betetzen dituela ziurtatzeko.

TÜV SÜD ziurtatze-erakundeak emana, egiaztagiriak Europako Batasunaren trenbide-segurtasunari buruzko arautegian eta zuzentarauan jasotako mantentze-lanen lau eginkizunak hartzen ditu: mantentze-lanak kudeatu, garatu eta burutzea eta ibilgailuak zerbitzutik atera eta, lanak egin ostean, zerbitzura itzultzeko gestioak egitea.

Aitortza gure enpresak iazko ekainean eskuratu zuen ibilgailuen mantentze-lanen ISO 9001ari lotzen zaio; lan horien kalitatearen eta segurtasunaren alde hasitako bidea bermatzen duten bi ziurtagiri, alegia.




BALIABIDE TEKNIKOAK

Tren-atoi berria Sopela tailerrean

Atoi-ontzi elektrikoa erosi izanak Sopelako tailerraren eremuan trakzio-gaitasunik gabeko trenak mugitzea errazten du. Makineria berriari esker mantentze-lanak arindu dira eta urrats bat aurrera egin da jardueraren segurtasunean. Aldaketa horren ondorioz, trenak askoz ere zehaztasun handiagoz, ia-ia milimetrora, gelditzen dira.

Urrunetik kontrolatzen den atoi-ontzia Zwiehoff etxe alemanarena da, eta ia eskatu bezala fabrikatu da, lizitazioa tarteko, Metro Bilbaoren beharrak asetzeko. Bere berun-bateriak zazpi ordura arteko lan-autonomia ematen dio, gaituta dago ia 500 tona garraiatzeko (trenbide lehor, zuzen eta horizontalean) eta, moldakorra denez, errailetatik zein hormigoizko zoruetatik ibil daiteke. Dispositiboa scharfenberg-etik lotzen zaio trenari, eta aukera ematen du maniobrak bi noranzkoetan, hots, aurrerantz eta atzerantz, egiteko.

Makina berriak P1, P2 eta P- azterketak azkartu ditu, besteak beste, trena haize-tunelera edo katu-trenbidera sartu behar baita, non ez dagoen katenariaren bidezko elikadura elektrikorik. Gurpilak torneatzeko eta beste mantentze-lan batzuetarako ere erabiltzen da, betiere, segurtasun-arrazoiengatik, maniobrak ez badira tailerreko irteerako S31S03 seinaleaz harago heltzen.



BALIABIDE TEKNIKOAK

Langileen auto elektrikoak kargatzeko puntuak

Enpresak bi masta gehitu ditu gero eta handiagoa den eta jada instalazio gehienetara heldu den hornidura-puntuen sarera: Ariz eta Sopela tailerrak, Bolueta, Urbinaga eta Nafarroa kaleko eraikina. Guztira 18 hartune 22 kWko potentziakoak, orain arte mantentze-lanetako furgoneta elektrikoak elikatzeke erabiltzen zirenak eta hemendik aurrera nahi duten langileek zein azpikontrataturako konpainietako langileek ere erabili ahal izango dituztenak.

19/2021 Errege-dekretuak finkatutakoaren haritik, ekimena Metro Bilbaok mugikortasuna, errepideetako joan-etorrietan barne, gero eta iraunkorragoa izan dadin ekimenaren baitan sartzen da.

Zerbitzua telefonorako aplikazio erraz baten bidez erabiltzen da, eta auto pribatuen kargak fakturatzeko plataforma baten bidez ordaintzen da.



BALIABIDE TEKNIKOAK

Greziako trenbideen bisita

Gure Zuzendari tekniko Iñigo Ortuondok eta Goyo Sarasola Operazio-zuzendariak Greziako trenbideetatik etorri ziren lau ordezkariak hartu zituzten: bi trenbide-konpainia nazionalekoak eta beste biak metro-operatzailekoa eta Atenaseko tranbiakoa.



BALIABIDE TEKNIKOAK

Gogoeta 'Rail Live'n, trenen etorkizunari buruz

Rail Live-en hizlari aritzeko gonbita jaso genuen; urteko egutegian dauden trenbide-ekitaldirik garrantzitsuenetako bat da. Zehazki, gure enpresak Madrilgo eta Bartzelonako metroen ordezkariekin parte hartu zuen azken berriei, ibilgailuen garapen eta funtzionaltasunei buruzko mahai-inguruan.

Iñigo Ortuondo gure zuzendari teknikoak, besteak beste, trenen garapen teknologikoa, aurrerapenak automatizazioan, eta gizartearen pertzepzioa, trenen su-erresistentzia, edo ingurumenarekin errespetuz ari den tren-sorta izan beharra jorratu zituen.



BALIABIDE TEKNIKOAK

Mantentze-lan prediktiboa

Monitorizazio-sistemen beste adar nagusia Errodaduraren Kudeaketa Integrala osatzen duena da. Lau ekipok osatzen dute: bat tailer bakoitzeko gurrpilak torneatzeko zuloan, gurrpilen parametroen neurgailu espezifiko bat Arizko 10 bidean eta inpaktu bertikalen edo planoen detektagailu bat trazaduran bertan, Santimami/San Mamés eta Indautxuko geltokien artean, 2. bidetik. Horien bidez, gurrpilen egoera eta errodadura-profila monitorizatzen dira, beharrezko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak ezartzeko, zirkulazioaren segurtasuna bermatzeko eta bidaiarien erosotasuna errazteko xedez.

Azkenik, duela gutxi sentsoreak ere instalatu dira 602 unitatearen ardatz batzuetan, alderantzizko neurketa egiteko eta, trenetik bertatik, trenbidearen anomaliak antzemateko, normalean ontziraturako monitorizazio-sistema bezala ezagutzen dena. Esperientzia pilotu bat da, eta aukera emango du zehazteko ea bere maila igotzen edo jaisten den, ea badenak dauden edo, are gehiago, trenbidearen mantentze-lan jakin batzuk, hala nola bateoa, maiztasun handiagoz eta arin planifikatzeko.



METROA ETA GEHIAGO



Horiz jantzi ginen Tourrean

Tourrak horia ezarri zuen Bizkaiaren hiri-paisaia. Bat egin genuen herritarren berotasunarekin eta gure instalazio batzuk apaindu genioen Gran Départ hura zela-eta. Zehazki, Moyua eta Abando geltokietako kaleko igogailuak eta Ansioko pasarela binilatuta egon ziren, "Ongi eTOURri" ziotela.



Metro Akustikoa

"Metro akustikoa" hirugarren edizioa egin genuen, "Fair Saturday" ospakizunetan.

20 kontzertu eman ziren, goizez eta arratsaldez, musika-estilo askotarikoak, Zazpikaleak/Casco Viejo, Abando, Moyua, Santimami/San Mamés eta Sarriko geltokietan.

METROA ETA GEHIAGO



Martxoaren 8a

Berdintasuna lantzen 25 urte betetzen zituela, Metro Bilbaok Emakumeen Nazioarteko eguna ospatu zuen martxoaren 8an.

Celtoki guztietan eta igogailuetan oroitzeko kartelak jarri ziren.

MARTXOAK 8: BERDINTASUNERANTZ BETI AURRERA

“Berdintasunerantz beti aurrera” lelopean, agerian utzi genuen berdintasunarekin dugun konpromiso irmoa gure kanpainaren irudirik adierazgarrienak gure sareko geltoki guztietako MEATetan eta ohar-panelenetan, eta nasetako oppi digitaletan argitaratuz. Gainera, Abandon, egun berezi horren epizentroa izanik, Kale Nagusian dagoen igogailua eta fosteritoaren ondoko informazio-panelak biniloiz estali ziren.

Kanpaina irudikatzeko aukeratutako diseinuak 8 zenbaki handi bat islatzen du, itxuraz metroaren plano bat den horretan geltoki nabarmen bat irudikatzen duena. Irudiarekin batera, “Berdintasunerantz, beti aurrera” mezua zabaldu zen. Mezu horrek jarraipena ematen dio iazko leloari (“Berdintasunerako bidaia. Aspaldi abiatu ginen... eta oraindik bidean gaude”), eta helburua lortzeko falta zaizkigun urratsak azpimarratu nahi ditu.

Bide horretan aurrera goaz... Inoiz baino irmoagoak gure konpromisoarekin!

METROA ETA GEHIAGO



Metro Bilbao San Tomasean buru-belarri

Metro Bilbaok egun bakarreko bidaia-errekorra lortu zuen hain berezi zaion azoka-jaian. 2023an 387.098 balioztatze zenbatu ziren. Eginkor parte hartu nahi izan genuen, baita euskal baserriekin dugun konpromisoa erakutsi ere. Lehen sektorea eta bere azokarik jendetsuena babesteko «Gure nekazariekin, mahaia prest» leloa erabili genuen kanpaina batean.

Gabonetako tradiziozko mahai-zapiaren irudiarekin, mezua geltokietako pantaila digitaletan, publiztate-euskarrietan eta MEAT pantailetan proiektatu zen. Zazpikaleak/Casco Viejo geltokian, gainera, eserlekuak eta mezzaninak binilatu ziren; Abando, berriz, kaleko igogailuaren kupula estali zen.

BBK Fundazioarekin elkarlanean, 3.000 lepo polar banatu zitzaizkien bezeroei eta nekazari profesionalei, Areatzako etxoletan beren produkturik onenak saltzen ari zirela.

METROA ETA GEHIAGO



Gabonetako kanpaina

GABONETAKO ZUHAITZAK GELTOKIETAN

Bat egin genuen Gabonetako jai-giroarekin eta hiru zuhaitz eder ipini ziren Ansio, Moyua eta Areeta geltokietan.


GABONETAKO ZORION-MEZUA

OLENTZEROK GUTUNAK BILDU ZITUEN GELTOKIETAN

20 geltokitan postontziak ipini ziren txikiek Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoei idatzitako gutunak sartzeko.

Gure ikazkin maiteak geltokietako postontziak hustu eta ehundaka gutun zakuratu zituen. Postontziak egun gehiago luzatu ziren geltokietan Errege Magoentzako eskariak ere hartzeko.

METROA ETA GEHIAGO



“Errespetua” metroan

Rap erritmoan eta bi ahotsetara Horixe izan zen kanpainaren soinua, abesti formatuan, gure instalazioetan gizalegea sustatzeko. Ia bi minutu eta erdiko abestia, «errespetu» hitza gako delarik.

Errespetua gure langileekin, esan barik doa, baina baita gure trenai, geltokiei eta Metro Bilbaoren sarea osatzen duten gainerako instalazioei eta, nola ez, garraiobidetzat hautatzen gaituzten pertsona guztiei ere.

Lova Lois eta Betto Snay, ezagun egiten ari diren bi euskal artista eta gure langileak ere bere protagonismo-kuotarekin bideoklipean.



Euskararen Eguna

Antzerkiaren bidez euskararen eguna ospatu genuen metroaren instalazioetan. Aktore pare bat, gure hizkuntzaren aldeko lana aipatuz okasiorako bereziki jantzita, bi lineetako geltokietan ibili eta trenetan igo ziren, umorea baliatuz, gure langileekin eta bezeroekin elkarrekintzan aritzeko. Antzeppen horrekin amaiera bikaina eman zitzaion egun berezi hori gogoratzeari; Nafarroa kaleko balkoitzarrean ohiko pankarta zabalduratu genuen eta, gainera, geltokietan oso kartel originalak jarri ziren, Metro Bilbaho euskaraz lelopean, gure markarekin eta «aho» erreferentziarekin jokatu guran, gure hizkuntzaren transmisore ezinbestekoa delakoan.

METROA ETA GEHIAGO



Erakusketak

“YHABRIL. ARGIA, MENDIA,... AURRERA!”

BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdiaren 16. edizioaren baitan, Yhabril Moro argazkilariak kanpoaldeko 20 irudi handi erakutsi zituen Zazpikaleak/Casco Viejo, Abando, Moyua, Indautxu eta Santimami/San Mamés geltokietan.

Gonzalo Bartolomé Tierra (Bilbo, 1978), artearen munduan Yhabril Moro bezala ezaguna, abentura-argazkigintzaren, ekintza-kirolen, faunaren eta, oro har, naturaren zale autodidakta sutsua da.



“XXI. MUNDIALITOA 2023” ERAKUSKETA

Leioako Sarriena futbol-zelaia "Integrazioaren Mundialitoaren" egoitza bihurtzen da udaro, 2001etik. Kirol-ekitaldi horrekin elkarlanean aritzen da Metro Bilbao, integrazioari, immigrazioari eta berdintasunari ikusgarritasuna emateko.

Abando eta Indautxuko geltokietan ezarri zen "XXI. Mundialitoa Leioa 2023" erakusketa. Urte hauetan guztietan 25 herrialdek baino gehiagok hartu dute parte; guztira 35 taldek parte hartu dute, emakumezkoek zein gizonezkoek, eta edizio bakoitzeko 500 kirolarik parte hartu dute, batez beste. Metro Bilbaoren eta Leioako eta Getxoko Udalen laguntzarekin antolatua, Mundialitoa taldeen arteko adiskidetasuna eta elkartasuna bezalako balioen isla da, eta kirol lehia bigarren mailan geratzen da.

METROA ETA GEHIAGO



Erakusketak

EMAKUMEA ZIENTZIAN... ETA METROAN

Matematikak, fisika, kimika... Zenbait irakasgairen izenak izateaz gain, gero eta emakume gehiagoren lanbidea ere badira. Teknologoen eta zientzialarien papera bigarren mailan egon da beti historian zehar, nahiz eta joera alderantzikatzen hasi den. Berdintasunerako bide horretan laguntzeko asmoz, gaur eguerdian, Abandoko geltokian, zenbakien eremu profesionalean nabarmendu diren hainbat euskal emakume protagonista bihurtzen dituen erakusketa inauguratu da.

‘Euskal Emakumeak Zientzia eta Teknologian’ izenburuarekin, eta Renfetik Abandora doan sarreran kokatua, erakusketak 13 panel handi izan zituen, non zientzia, teknologia eta ingeniari bezalako esparruetan erreferente bihurtu diren 24 emakume erakusten diren. Helburua bikoitza da; izan ere, beren ikerketa-lana eta lan profesionala goraipatzeaz gain, neskatoek eta neska gazteek beren bidea jarraitzeko interesa izatea ere sustatu nahi du erakusketak.

METROA ZENBAKITAN



SAREA

Sarearen ezaugarriak	2023
Luzera (kilometrotan)	45,10
Geltoki kopurua	42
Lurpekoak	26
Lurrazalekoak	16
Sarbideak	84
Geltokien arteko distantzia, batez beste	1,06
Kilometroak guztira	4.881.455
Kilometroak ohiko zerbitzuan	4.738.152
Kilometroak zerbitzu berezietan	13.601
Kilometroak probatan (bidaiaririk gabe)	129.702
Kilometro eskaintza	4.751.753

METROA ZENBAKITAN



IBILGAILUAK

Kontzeptua	Kopurua
UT500 4 bagoi	11
UT500 5 bagoi	13
UT5500 4 bagoi	13
UTE 600 5 bagoi	9
Ibilgailu osagarriak	14
Metroa zenbakitan	21.255.827
Lekuak lau bagoiko trenean (4p/m ²)	600
Lekuak 5 bagoiko trenean (4p/m ²)	718
Plaza/Km eskaintza (4p/m ²)	3.116.411.963
Egindako zirkulazioak	203.607

METROA ZENBAKITAN



ESKARIA ETA KUDEAKETA

Kontzeptua	Kopurua
Bidaariak guztira	92.380.889
Laneguneko batezbestekoa	299.583
Urteko errekorra	387.098
Lekuak-km okupatuta	607.876.395
Lantaldea/sare-km	18
Bagoiko batez besteko bide-eskaintza (km)	103.183,62
Bidaiariko batez besteko bidaia (km)	6,58
Bidaariak/sare-km	2.048.356,74
Bidaariak/km tren-eskaintza	19,44
Bidaariak/bagoi-km-eskaintza	4,35
Bidaariak/lantaldea	113.769,57
Abiada komertziala km/h	33,48
Lantaldea/eskainitako milioi bagoi-km-ko	38,20
Eskainitako bagoi-km/sare-km	471.304,36
Energia elektrikoaren kontsumoa guztira (km-h)	72.140.975,00
Trakzio-kontsumoa (kw-h)	46.404.347,03
Kontsumoa geltoki, eremu tekniko eta bulegoetan (kw-h)	25.736.628,00
Kontsumoa bidaiariko (kw-h/v)	0,78
Kontsumoa (kw-h)/bagoi-km (azpiestazioa)	2,13
Kontsumoa (kw-h)/bagoi-km (watioordumetro)	1,98

METROA ZENBAKITAN



EKONOMIKOAK

Sarrerak	Kopurua
Sarrerak bidaiari-garraioarengatik	38.566.583
Beste sarrera batzuk	2.377.022
Finantza-sarrerak	397.005
Diru-laguntza txartelak merkatzeagatik	22.248.766
Kapitala gehitzea BGP	45.000.000
GUZTIRA	108.589.376

Gastuak	Kopurua
Langile-gastuak	47.751.459
Energia	9.436.289
Operazio gastuak	33.735.019
Amortizazio-zuzkidura	1.669.031
GUZTIRA	92.591.798

Emaitzak	Kopurua
Urtaldiaren emaitza	-29.002.423
Operazio-emaiza	-27.730.397
Índice de cobertura (Ing.op./gas.op.)	69,50%



metro bilbao

